



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2007KO UZTAILAREN 12AN OSPATUTAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

D. Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

D. Jabier Berrojalbiz Bidaguren jauna

D. Angel Luis Uribarri Gondra jauna

Dña. Maria Angeles Goikolea Uriarte andrea

Idazkaria:

Dña. Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2007ko uztailaren 12an, arratsaldeko 18:30tan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ez ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin. Miren Jasone Bernaola Aurrekoetxea andreak eta Roman Etxeandia Zabala jaunak bilerara etorri ezin direla adierazi dutela aipatzen du Alkateak.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

1.- BEÑAT EREZUMA ARISKETA JAUNAK ZINEGOTZI KARGUAREN HARTZEA, BEHAR BADA.-

Ajangizen, Udaletxeko Batzar Aretoan, ekainaren hamaseian, eguerdiko hamabietan direnean, ekainak 19 ko 5/1985 Lege Organikoaren 195 artikulua eta Toki Erakundearen Erregimen juridiko eta antolamendu eta funtzionamenduari buruzko Araudiak 37 artikuluan xedatzen duen eran, Ajangizko Udala eratu zen, hautatutako zinegotziek aurretik beraien izendapen agiriak eta Udal Gorporazio kideen interesen Erroldan ezartzeko egoki diren aitortpenak aurkeztu zituztelarik.

Beñat Erezuma Arisketa zinegotzi hautatua batzarrean egon izan ezin zuela eta gaurko egunez izendapen agiria eta Udal Gorporazio kideen interesen Erroldan ezartzeko egoki diren aitortpena aurkezten ditu, eta zinegotzi obligazioak fidelki beteko ditzuela hitz emanaz bere kargua hartzen du.

Honen bestez Udal Gorporazioaren parte bilakatzen da.



Ajangizko Udala

2.- KORPORAZIO ANTOLAKETARAKO HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA.-

Lehenengo eta behin Alkateak Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 20 eta 21.2 artikuluetan arautzen duenean oinarrituz, Alkate ordearen izendapena burutzen du, ondoren adierazten denaren arabera:

1. Alkate orde: Jabier Berrojalbiz Bidaguren jauna

Ondoren Udalak lanerako osatuko diren Batzordeen berri ematen da, batzorde bakoitzaren burua aipatuz.:

- **Nekazaritza Saila:** Jabier Berrojalbiz Bidaguren jauna
- **Hazienda Batzordea:**

Alkate jauna izango da Hazienda Batzordeko buru, horrez gain, Angel Luis Uribarri eta EAJ/PNVko ordezkari batek osatuko dutelarik.

Tesoreroa, Angel Luis Uribarri jauna izango da.

- **Gizarte Ekintza:** Maria Angeles Goikolea Uriarte andrea
- **Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak:** Angel Luis Uribarri Gondra jauna
- **Heziketa Kultura eta jaiak:** Beñat Erezuma Arisketa jauna

Alkateak batzordeak zabalak izan daitezen espero du, batzorde guztietan talde desberdinen partaidetza bultzatuz. Halaber, herriarentzako garrantzitsuak diren gaietan erabakirik hartu aurretik beste taldearekin (EAJ/PNV...) harremanetan gaia aztertzeke asmoa azaltzen du.

Bestetik, Udalak burutu behar dituen kontratazio espedientetan **Kontratazio Mahaia** osatzerakoan, honako konposaketa aurkezten du:

- Mahaiburua: Alkatea
- Bokalak: Angel Luis Uribarri Gondra
EAJ/PNVko ordezkari bat
- Idazkaria: Udalekoa

Udalazgandiko erakundeetan Udalak duen partaidetzari dagokionez, honakoak izango dira Ajangizko Udaleko ordezkariak:

- **Urremendirako ordezkaria:** Jabier Berrojalbiz Bidaguren jauna
- **Uren Patzueragoko ordezkaria:** Angel Luis Uribarri Gondra jauna
- **Behargintza:** Maria Angeles Goikolea Uriarte andrea



Ajangizko Udala

- **UEMA:** Beñat Erezuma Arisketa jauna

Udal Osoko Bilkurei dagokienez, plenoak hilero ospatuko dira, hileko azken ostegunetan, arratsaldeko 18:30tan.

Antolaketa zehaztuta, dieten onarpena aurkezten da:

- **Plenoetara joateagaitik dietak:** 42 euro
- **Kilometrajea:** 0,22 euro/km
- **Batzarretara joateagaitik dietak:** 25,24 euro

Udal taldeei diru kopuru emateari dagokionez, EUDELeK Euskadiko Alkate eta Zinegotziek jaso behar dituzten diru-kopuruei buruz 2007rako onartutako irizpideak proposatzen dira:

Taldeka: 72,38 euro/hilabeteko
Zinegotziko 36,20 euro/hileko/zinegotziko

Bertaratutako zinegotziek aipatutakoarekiko beraien oneritzia adierazten dute.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da arratsaldeko zazpiak hamar gutxi direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA